



Bi intoxikatu arin Euskadin, histaminaz kutsatutako atuna jateagatik

Euskadin bi intoxikazio arin izan dira azken egunetan histaminaz kutsatutako atuna jan eta gero, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jakinarazi duenez. Jon Darponek zuzentzen duen sailak kontrol-neurriak hartu ditu jada produktua merkatutik benetan erretiratu dela egiaztatzeko.

Elikadura arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziak (Aecosan) asteartean jakinarazi zuen histaminak eragindako hainbat elikadura-intoxikazio hauteman zituela. 25 pertsona intoxikatu dira Andaluzian; 11, Madrilen; lau, Murtzian, eta bi, Euskadin.

Histaminaz kutsatutako atuna Almeriako Garciden enpresak merkaturatu zuen, freskoan hutsean ontziratuta. Kaltetutako loteak apirilaren 24tik maiatzaren 5era bitartean saldu dituzte.

Histamina kopuru handia duten produktuak jan eta ordu erdira hasi ohi dira sintomak: eztarriko azkura, gorritasuna eta izerdia aurpegian, botalarria, buruko mina eta azaleko arazoak.

Elikagaiak manipulatzeko orduan garbitasun falta izateagatik agertu ohi da histamina. Arrainaren kasuan, txarto kontserbatzeagatik azaldu ohi da, denbora luzez tenperatura altuetan gordeta edukitzeagatik. Kozinatu arren, histamina ez da desagertzen, eta intoxikazioa eragiten du berdin-berdin.

Fidger Spinner, umeek eta nerabeek erosi nahi duten jostailu berria

Fidget Spinner du izena, eta nazioartean ume guztiek erosi nahi duten jostailu berria bihurtu da jada. Estresaren kontrako tresna hori azken asteotan modan jarri bada ere, duela bi hamarkada baino gehiago asmatu zuten. Emakume batek duela hogeit hamar urte inguru sortu zuen tresna hori, nolana ere, bakea irudikatzen duen asmoz.


Spinner izenarekin ezagun egin den jostailuak hiruki moduan kokatuta dauden hiru helize ditu. Esku batekin mugiarazten da, eta tresna horren muiak bere horretan bira egiten du. Hauxe da jostailuaren xarma nagusia: behin eta berriro biraraztea. Alabaina, nerabe askok jostailua esku batetik bestera pasatzea, atzamarraren puntan biraraztea edota ukondoan jartzea lortu dute. Erronka horretan datza: jostailua lekuz aldatzean mugimenduan jarraitu behar du. Hala, XXI. mendeko ziba balitz erabiltzen dute nerabe askok, eta sare sozialetan trikimailuak egiteko azalpenak emateaz gaien haiek grabatutako erakusketak zabaltzen dituzte.

Tuberkulosi kasu bat antzeman dute Deustuko Unibertsitatean

Biriketako tuberkulosi kasu bat antzeman dute Deustuko Unibertsitatean, eta Osakidetzak prebentziozko protokoloa aktibatu du.

Tuberkulosia gaixotasun infekziosoa da, gizakien artean kutsatzen dena, eta *mycobacterium tuberculosis* izeneko bakterioak eragiten du gaitza.

Osakidetzak azpimarratu duenez, urtean 170 tuberkulosi kasu antzematen dira Bizkaian (ez da oso gaixotasun larria), eta dagokion tratamendua jarraituta sendatu ohi da.





Iruzurak eta buloak WhatsAppen

Azken egunotan gorakada nabarmena egon da WhatsApp bidez zabaltzen diren iruzur eta buloetan. Espainiako Poliziak Twitterren duen kontuan erabiltzaileei ohartarazi dienez, urtebetez Netflixeko zerbitzuak doan erabiltzeko eta 'premium' kontuak sortzeko aukera ematen duen mezua gezurra da.

WhatsApp bidez zabaltzen ari den mezuak honakoa dio: "Urtebetez doako harpidetza oparitzen du Netflixek". Mezu horrekin batera, esteka faltsu bat agertzen da. Dena dela, estatubatuar entretenimendu konpainia horrena dela pentsa liteke, horren izena eta argazkia ageri baita.

"Eskaintza berezia" aktibatzeke, gutxienez beste hamar kontaktuei birbidali behar zaie mezu hori. Urrats hori emandakoan, norberaren telefono zenbakia eman behar da, antza, Netflixen kontu berria sortu eta bertako edukiak urtebetez doan ikusi ahal izateko.

Alabaina, Espainiako Poliziak jakitera eman duenez, norberaren datu pertsonalak eta telefono zenbakia lapurtzeko iruzur bat besterik ez da. Arrazoi horregatik, mezu horrekin batera agertzen den estekan ez sartzeko aholkua eman du, gaizkileek "malware" delako birus informatikoa sartu dezaketelako telefono mugikorrean.

Aste honetan WhatsAppen agertu den bigarren iruzurra da hau, duela egun batzuk 530 kontu libre besterik ez zirela geratzen zioen mezu bat zabaldu baitzen. Gainera, mezua kontaktu guztiekin partekatzea eskatzen zen, hala egin ezean, erabiltzaile horri kontua itxiko baitzioten. Halaber, berehalako mezularitza zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu beharko zela zioten. Espainiako Poliziak gezurra zela argitu zuen Twitterren.

EGURALDIA

Larunbatean, zerua tarteka hodeitsu goizaldean baina geroago, berriz, zerua hodei gutxirekin egongo da. Gauean, aldiz, zaparrada arinak eta trumoiak botako ditu. **Igandean**, haizea iparraldetik finkatuko da eta, ondorioz, hodei batzuk pilatu daitezke, euri apur bat utzi dezaketelarik. Horrez gain, tenperatura pare bat gradu jaitsiko da.

Karrantza futbol taldea zigortu dute epaile bati egindako eraso eta irainengatik

Zigorra ezarri diote Karrantza Kirol Klubari astelehenean Bizkaiko Bigarren mailako Karrantza-Zuazo futbol taldeen arteko partidaren jazoengatik. Karrantzako zale batzuek eta jokalariek batek eraso eta irainak egin zituzten marrazainetako bati, aurkari bati eta Zuazo futbol taldeko zuzendaritzako kide bati. Bizkaiko Futbol Federazioaren Diziiplina Batzordeak honako zigorra ezarri dio taldeari: 600 euroko isuna eta zelaiaren behin-behineko itxiera (lau partida). Horrez gain, marrazainari txistua bota zion jokalaria 12 partidako zigorra jaso du.



Istiluak neurketako bigarren minutuan hasi ziren. Harmailetatik partida ikusten ari ziren Karrantzako zale batzuk emakumezko marrazainari birao egiten hasi zitzaizkionean.

Halaber, jokalariek beltz bat ere iraindu zuten.

Epailearen esanetan, Karrantzako ordezkaria jakinaren gainean jarri ondoren, irainak ez ziren errepikatu lehen zatian. Bigarren zatian, baina, Zuazoko partida bukatzeko hamabost minuturen faltan gola egin zuenean bereziki, marrazainaren aurkako erasoak hasi ziren: mehatxuak, irainak eta mespretxuak.

90. minutuan, Karrantzako jokalariek batek txistua bota zion bizkarrean marrazainari, eta identifikatu gabeko pertsona batek kolpea eman zion Zuazoko zuzendaritzako kide bati partidaren amaieran.

Deiadar Mendien Eguna



Bizkaiko Batzar Nagusiek oso jardunaldi berezia ospatzeko bidea zabalduko dabe barriro.

Kondairak dinoenez, Gernikan egiten ziran bileretarako deialdia egiteko erabilten ziran adarraren soinuak bideratuko dau domeka honetan, Deiadar Mendien Egunaren XIV. edizioagaz bat egiten daben pertsonen Sollubeko igoerea. Bizkaiko mendi enblematikoenetakoa dan Sollube izango da ospakizun honen agertokia, aurreko urteetan beste lau deiadar tontorrak (Gorbeia, Ganekogorta, Kolutza eta Oiz) izan ziran moduan.

Igoerea goizeko 09:30etan hasiko da Taraska plazatik eta 10:00ean Arrietako udaletxetik. Sollube mendian entzungo dan adarraren soinuaren ostean, antolatzaileek jai-gune txiki bat prestatu dabe, eta bertan ez dira faltako musikea, dantzak eta jateko pixka bat.